



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

# ALDIZKARI OFIZIALA BOLETÍN OFICIAL

XI. legegintzaldia / XI legislatura

N.º 94 zk.

2018.09.21 / 21.09.2018

\*\*\*

***Euskadiko autogobernua eguneratzeko*** (Ebazpena)  
(11/11.08.00.00002)

Mahaiak, 2018ko irailaren 18ko bileran, agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila ponentziak hartutako ebazpena.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**Euskadiko Autogobernua Eguneratzeko Eusko Legebiltzarraren Ponentziaren ebazpena, zeinaren bidez talde tekniko bati agintzen baitzaio testu artikulatu bat idaztea indarrean dagoen Autonomia Estatutuaren erreformari buruzko lege-proposamenari buruz**

\*\*\*

***Para la actualización del autogobierno de Euskadi***  
(Resolución)  
(11/11.08.00.00002)

La Mesa, en su reunión del día 18 de septiembre de 2018, ordena la publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco de la resolución adoptada por la ponencia.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**Resolución de la Ponencia del Parlamento Vasco para la actualización del autogobierno de Euskadi por la que se encomienda a un grupo técnico la redacción del texto articulado de la Proposición de Ley de reforma del Estatuto de Autonomía vigente**



Euskadiko Autogobernua Eguneratzeko Ponentziak, 2017ko urtarrilaren 26an Osoko Bilkurak erabakitakoa garatzeko Eusko Legebiltzarrean eratuak, adostu du talde tekniko bati agintzea idatzi dezala indarrean dagoen Autonomia Estatutua erreformatzeko lege-proposamenaren testu artikulatua ondorengo jarraibideei jarraituz:

1. Talde teknikoak indarrean dagoen Autonomia Estatutua erreformatzeko lege-proposamenaren testu artikulaturako hasierako proposamena idatziko du Euskadiko Autogobernua Eguneratzeko Ponentzia parlamentarioak onartutako oinarri eta printzipioekin bat.

Era berean, adostutako oinarriak errespetatuz eta babestuz, aukera aztertuko eta ahalegina egingo du oinarri eta aurkeztutako boto partikularren artean bat datozen puntuak aurkitzeko, zabalitze aldera, posible balitz, dagoeneko lortu diren adostasunak.

Adostasun horiek adierazi egingo dira ponentziak hausnartu ditzan.

2. Talde teknikoak bere baitan erabakiko du proposamen hori idazteko egin beharreko lanerako metodoa.
3. Talde parlamentarioek izendatu dituzten adituek konfidentzialtasun-konpromisoa hartu beharko dute batzordean, lanek iraun bitartean, egiten duten lanaren eta gogoeten gainean.
4. Agindua betetzeko, Eusko Legebiltzarrak ematen dien euskarri teknikoak izango dute: legelarien taldea, dokumentazio-zerbitzuak, itzultzaileak eta Legebiltzarrak dituen gainerako zerbitzuak (baldin eta sortzen diren beharrei erantzuteko beharrezkoak badira). Halaber, Legebiltzarrak adituen lanak eragiten dituen gastuei erantzun-ego die Mahaiak erabakitzen duen moduan.
5. Zortzi hilabeteko epea jotzen da lege-proposamenaren hasierako proposamena Euskadiko Autogobernua Eguneratzeko Ponentziari emateko.
6. Talde teknikoko kideren batek edo batzuek edozein arrazoi dela-eta uko egiteak ez ditu taldearen lanak geldituko. Uko egingo lukeen aditua izendatu duen talde parlamentarioak haren ordezkoa izendatu ahal izango du hamalau egun naturaleko epearen barruan.

\*\*\*

La Ponencia para la actualización del autogobierno de Euskadi, constituida en el Parlamento Vasco, en desarrollo del acuerdo plenario de 26 de enero de 2017, acuerda encomendar a un grupo técnico la redacción del texto articulado de la Proposición de Ley de reforma del Estatuto de Autonomía vigente a partir de las siguientes pautas:

1. El grupo técnico redactará la propuesta inicial de texto articulado de la Proposición de Ley de reforma del Estatuto de Autonomía vigente, en congruencia y de conformidad con las Bases y Principios aprobados por la Ponencia parlamentaria para la actualización del autogobierno de Euskadi.

Asimismo, desde el respeto y salvaguarda de las bases consensuadas, se contemplará y procurará la posibilidad de hallar puntos de conexión de estas con los votos particulares presentados en la búsqueda de ampliar, si fuera posible, los consensos ya alcanzados.

Dichos consensos serán identificados a efectos de su consideración por parte de la ponencia.

2. El grupo técnico determinará internamente el método de trabajo a desarrollar para la redacción de la referida propuesta.
3. Los expertos designados por los grupos parlamentarios deberán asumir un compromiso de confidencialidad sobre sus labores y sus deliberaciones en el seno de la comisión mientras duren sus trabajos.
4. Para el desarrollo de la encomienda contarán con el soporte técnico que les facilite el Parlamento Vasco con su cuerpo de letrados, servicio de documentación, traductores y demás servicios con que cuente la Cámara y que pudieran servir a la comisión para atender las necesidades que pudieran ir surgiendo. Asimismo el Parlamento atenderá los gastos que genere su trabajo en los términos que determine la Mesa.
5. El tiempo estimado para la entrega de la propuesta inicial de la proposición de ley a la Ponencia para la actualización del autogobierno de Euskadi será de ocho meses.
6. La renuncia por cualquier motivo de alguna o algunas de las personas integrantes del grupo técnico no paralizará los trabajos del grupo. El grupo parlamentario que hubiese propuesto a la persona experta que eventualmente renuncie, podrá proponer a una persona sustituta en un plazo de catorce días naturales.

\*\*\*



***Euskadiko autogobernua eguneratzeko*** (Talde teknikoko kideak)  
(11/11.08.00.00002)

Mahaia, 2018ko irailaren 18ko bileran, agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila ponentziaren erabakia.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

Euskadiko Autogobernua Eguneratzeko Eusko Legebiltzarreko Ponentziak erabaki zuen, 2018ko uztailaren 6an egindako bileran, talde parlamentarioek Erregistroan aurkez zitzaten indarrean dagoen Autonomia Estatutuaren erreformarako lege-proposamenaren testu artikulatua idaztea aginduko zaio talde tekniko osatuko duten pertsonak. Aurkezteko azken eguna irailaren 7a ezarri zen.

Epea amaituta Mahaiari jakinarazten zaio hauek izango direla talde teknikoko kideak:

- **Mikel Legarda Uriarte**
- **Iñigo Urrutia Libarona**
- **Arantxa Elizondo Lopetegi**
- **Alberto López Basaguren**
- **Jaime Ignacio del Burgo Tajadura**

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 14a

**Legelari nagusia, Andoni Iturbe Mach**

\*\*\*

***Para la actualización del autogobierno de Euskadi***  
(Miembros del grupo técnico)  
(11/11.08.00.00002)

La Mesa, en su reunión del día 18 de septiembre de 2018, ordena la publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco del acuerdo adoptado por la ponencia.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

La Ponencia del Parlamento Vasco para la Actualización del Autogobierno de Euskadi acordó en su reunión de 6 de julio de 2018 que los grupos parlamentarios presentasen ante el registro de la Cámara las personas que formarán parte del grupo técnico al que se encomendará la redacción del texto articulado de la Proposición de Ley de reforma del Estatuto de Autonomía vigente. Para ello se estableció el 7 de septiembre como fecha límite para su presentación.

Una vez finalizado el plazo se comunica a la Mesa que los miembros del grupo técnico son los siguientes:

- **Mikel Legarda Uriarte**
- **Iñigo Urrutia Libarona**
- **Arantxa Elizondo Lopetegi**
- **Alberto López Basaguren**
- **Jaime Ignacio del Burgo Tajadura**

Vitoria-Gasteiz, 14 de septiembre de 2018

**El letrado mayor, Andoni Iturbe Mach**

\*\*\*